

MATRIKULAZIO ARAUTEGIA

- ◆ Tasak ezarritako moduan aplikatzeko, ikasturte hasieran udalarekin errolda datuak egiaztatuko dira.
- ◆ Plazak mugaturik egongo dira. Sarbiderako lehentasun irizpideak hauek dira:
 1. Musika eta Mugimendua bukatu duten ikasleak (1. mailan hasitakoak eta eskolako ikasleak).
 2. Eskolako ikasleak diren beste guztiak
 3. Ikasle berriak; haurrak
 4. Ikasle berriak; helduak
- ◆ Matrikulatzeak Altsasuko Udal Musika eta Dantza Eskolaren Barne-erregimenaren arautegia onartzea suposatzen du.
- ◆ **Ikasturtea hasiz gero, ikasturte horretako kuota guztiak ordaintzea derrigorrezkoa izango da.**
- ◆ Matrikula ezarritako epez kanpo egiten bada, ezingo da ikaslearendako plaza bermatu.
- ◆ Funtzionamenduaren ezohiko arrazoiak direla eta, azkenean inolako espezialitaterik ez eskaintzea izango da matrikula bueltatzeko arrazoi bakarra.
- ◆ Ikasleari leporatu ezin zaizkion arrazoiak direla eta, ikastaroak aurrera egiten ez badu, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio.
- ◆ **Hilabeteko kuota ordaintzen ez badira, klaseak hartzeko eskubidea galduko da.**
- ◆ Baja eta matrikula bueltatzeko eskaerak idatziz edo horretarako idazkaritzan dauden ereduak betez aurkeztu beharko dira eskolan. Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako zuzendaritza taldeak eskaera eta kasuari dagokion araudia kontsultatu eta gero (ezgaitasuna, bizitoki aldaketa, lan kontuak...), erantzuna emango du 15 eguneko epean.
- ◆ Baja eskaera idatziz eta sinatuta Musika eta Dantza Eskolako idazkaritzan eta bulego orduetan aurkeztu den momentutik aurrera ikasle bezala izandako eskubide guztiak galduko dira, klasera bertaratzearena bereziki.
- ◆ **ORDAINKETA MODUA:**
 - Familia batek matrikula bakarra ordainduko du, hau da, familia bereko kide bakoitzak ez du matrikula bat ordaindu beharko. Matrikula bakar horrek bi espezialitateetarako balioko du; Musika eta Dantza.
 - Kuota zerbitzua jaso ondorengo hilaren lehenengo astean igorriko da.
 - Matrikularen zenbatekoaren erdia uztaileko lehen astean pasatuko da. Bigarren erdia iraileko lehendabiziko astean pasatuko da eta momentu horretan hartuko du balioa matrikulak. **Matrikularen zenbatekoa bankutik pasatu eta gero, ez da inolaz ere diru kopuru hori bueltatuko.**
- ◆ Ahal den heinean, klasea guztiak euskaraz eskainiko dira. Noizbait irakasle euskaldunik lortzen ez bada, eman behar dituen klaseak erdaraz izango dira. Halabeharrezko salbuespen kasuak izango dira.
- ◆ Matrikula orrian Hizkuntza Musikala euskaraz edo gaztelaraz jaso nahi den zehaztu beharko da (musikaren kasuan soilik). Hizkuntza bakarreko taldea aurrera atera ahal izateko, maila bereko gutxienez 5 ikasle egon beharko dira.